

opusdei.org

Hernanin bertan ezagutu nuen Opus Dei

Paqui Zubillaga: Vatikanoko II
kontzilioak adierazten zuen
espiritua Opus Dei barruan
nola isladatzen ikusteak
ziurtasun handia eman zidan.

2007 Eka 12

Paqui donostiarra da, baina
Hernanin bizi da orain dela berrogei
urte baino gehiago. Hogei urte
zituela ezkondu zen. Erizaintza ikasi
zuen eta Valdecillako ospitalean

lanean hasteko zorian zegoela bertan behera utzi behar izan zuen amets handi hura nefritis batek jota. Gero, endokrino batekin lan egiten jarri zen, bere senarrak lana utzi zuenean enpresak itxi zuelako. Bost urte ondoren CEITeko harreragile izateko aukera sortu zitzaion eta aldatu egin zen. 21 urte bete ditu lan honetan, eta ‘ikertzaile nagusi’ balitz bezala gozatzen du. Bi seme ditu. eta Opus Deiko “supernumeraria” kidea da.

Nola ezagutu zenuen Opus Dei?

Hernanin ezagutu nuen, 1973 urtean. Orduan Erain ikastetxea han zegoen kokatuta eta herriko adiskide batzuek, bere seme-alabak eskola horretan zituztenek, ezagutzera eraman gintuzten. Esan ziguten Opus Deiren ardurapean zegoela arimen zaintza. Nik ez nuen Opus Dei ezagutzen, baina atsegin zitzaidan, guretzat erlijio heziketak lehentasuna baitu.

Opus Deiko zerk gustatu zitzaizun gehien?

Zalantzarik gabe, Vatikanoko II. Kontzilioko doktrinarekiko hurbiltasuna. Beti izan dut erlijio-ardura handia eta Elizan gertatzen ari ziren aldaketak ikusten nituen. Opus Deien ikasten ari nintzen eta Kontzilioan esan ziren gauzen arteko lotura ikusi nuenean, lasaitu handia hartu nuen. Ziurtasun handia eman zidan.

Zein da 2007an bizi direnentzako Opus Deiren mezua?

Hiru gauza nabarmenduko nituzke. Jaungoikoa tratatzen ikasi dut eta honek asko lagundu dit eguneroko bizitzan sortzen diren arazoei aurre egiteko. Gainera, baduzu besteekin konpromiso bat, bere gauzetan laguntza emateko eta bizitza atseginagoa eginarazteko, beti gertuenetatik hasita: etxekoak, lankideak, eta abar. Eta hau guztia

askatasun eta besteen ideia
politikoekiko begirune giro batean
bizituta. Era guztietako jendearekin
bizitzen ikasi dut, moderatuekin eta
erradikalekin, mutur batekoekin zein
bestekoekin. Nire adiskide gehienek
ez dute ezer praktikatzen, ezertxo
ere ez, baina begirunez hartzen dugu
elkar. Hau beti izan da garrantzitsua,
baina hainbeste amorru nabaritzen
den garai honetan are
garrantzitsuago da.

**Uste al duzu Euskal Herriko tentsio
politikoak baduela zerikusirik
euskal gizartearen
sekularizazioan?**

70 hamarkadan, Opus Deien sartu
nintzenean, Hernanin ikaragarritzko
tentsio politikoa genuen. Nahikoa
zen kalera ateratzea. Gainera, asko
nahasten zen erlijioa eta politika,
baina jende askok praktikatzen zuen.
Orain gauzak aldatu egin dira. Nik
esango nuke erlijio heziketako

gabezian datzala arazoa, nork zein
alderdi bozkatzen duen axolarik
gabe.

.....

pdf | document generated
automatically from [https://
dev.opusdei.org/eu-es/article/hernanin-
bertan-ezagutu-nuen-opus-dei/](https://dev.opusdei.org/eu-es/article/hernanin-bertan-ezagutu-nuen-opus-dei/) (2025
Abu 7)